

# ***Hor al zaude***

Javier Daulte

Euskaratzea: Julia Marin

Obra hau 2007ko abenduaren 27an estreinatu da,  
Donostiako Antzoki Zaharrear.

Talde ekoizlea: Kanpingags  
Zuzendaria: Joseba Apaolaza

Aktoreak:  
Patxi: Asier Hormaza edo  
Aitor Gabilondo  
Ane/Nekane: Ainhoa Aierbe

1

*Apartamentu txiki bateko egongela. Hiru ate: sarrera, bainugela eta sukaldea. Kaxak nonahi. Zenbait altzari edonola jarrita. Patxi, 30 urteko gizona, modu informalean jantzita. Eserita dago, aulki huts bati arretaz begira. Ahalegin handia egiten du begiekin. Halako batean, zerbaitek asaldatzen du.*

**Patxi**

Zer? Zer esan duzu? Zerbait esan duzu? Barkatu, ez dizut ulertu; ez... Leo... lei... leihoa?

*Alboetara begiratzen du.*

A... atea?

*Isilunea.*

U... bu... Bufanda? Bufanda eman nahi didazu?

*Isilunea. Besoak mugitzen ditu.*

Zuk ikusten nauzu?

*Isilunea.*

Zerbait behar duzu?

*Isilunea.*

Zerbait nahi duzu?

*Isilunea.*

Ura?

*Isilunea.*

Zukua? Zerena? Ea... Pixka bat desordenatuta dago dena... ez dakit egongo... Erosketa batzuk egin ditugu, baina...

*Isilunea. Badirudi zerbait entzun duela.*

Barkatu?

*Isilunea.*

*Isilunea.*

Zukua, kaxakoa da, txiki horietakoa, ez da oso freskoa egongo: ez daukagu hozkailurik; baina, egia esan, hotz honekin... Hemen, estufa pare batekin...

*Kaxako zukua hartu ondoren "Gizonarengana" gerturatzen da.*

*Ikusten dut zure zera hori... ("Eskua" seinalatuz)*

*Zukua mahai gainean utzi ondoren, atzerapausoa ematen du. Eta segidan, aurrerapausoa.*

Eee... Nik irekiko dizut...

*Isilunea.*

Barkatu?

*Isilunea.*

Iruditu zait zerbait esan duzula...

*Isilunea.*

Benetan ez didazu eman nahi... Bufanda da hori, ezta?

*Isilunea.*

Kanpoan hotza egiten du. Baina hemen giro atsegina dago...  
Bueno, nire gusturako behintzat; ez dakit zuk nola...

*Isilunea.*

Noiztik zaude...? Betidanik izan zara...?

*Isilunea.*

Hemen igual traban... Traba egiten al... Bakarrik egon nahi duzu? Bueno, nora joanik ere ez dago, bakarrik egoteko esan nahi dut. Komuna, edo sukaldea, eta ez da oso handia. Anek espazio handiak atsegin ditu. Bizkaitarra da, bueno, gurasoak ditu Bizkaitarrak, Bilbotarrak. Espazio handiak atsegin ditu. Etxe handiak. Beti esaten du espazio handietan askoz errazagoa dela... elkarki... konbibentzia. Hau ez da oso handia... Baina ez naiz kexatuko. Ez zait gustatzen kexaka ibiltzea. Ez... Zer?

*Isilunea. Patxi begira geratzen da, begiak okertuz. Zerbait mugitu edo erortzen da ustez Patxirekin hizketan ari den gizonaren aldean.*

Argia? Sabaia? Min egiten dizu argiak?

*Isilunea. Zerbait bururatzen zaio bat-batean.*

Idatzi nahi duzu?! Hori nahi duzu, edo...? Ze zuk, ba al dakizu...? Alegia, idazten badakizu, ezta? I-D-A-T-Z-I... Ze, orduan, errazagoa izango da. Hala behintzat... Itxaron...

*Zerbaiten bila hasten da kaxen artean.*

Hemen nonbait behar du... Badakit hemen dela, ze nik gorde nuen... Badakizu? Azken bi urteetan lau aldiz aldatu naiz etxez? Bueno, ez. Egia esan, bost aldiz. Baina nahastu egiten naiz beti, bi alditan etxe berera aldatu nintzelako. Nahiko istorio konplikatua da eta orain ez... Izugarria da zenbat gauza eraman ditudan toki batetik

bestera, eta batzuk aldatzeko momentuan bakarrik ukitu ditut. Arropa eta halakoak... Urtea joan urtea etorri, hor egon dira... Arropa asko etxez etxe eraman dut, baina ez dut sekula jantzi. Zenbat gauza pentsatzen diren etxez aldatzean... Ea ba... Hemen! Hemen dago!

*Patxik bila jarraitu du kaxa artean. Aurkitu du nahi zuena. Arbel magiko bat da.*

Arrebarena zen, gero niri pasatu zidan eta...

*“Gizonaren” aulkiaren ondoan dagoen mahai gainean uzten du. Telefonoak jotzen du.*

A, bera izango da, Ane, nire...

*Telefono bila hasten da han eta hemen.*

Non sartu dut?

*Bila dabil. Telefonoak joka segitzen du. Azkenean aurkitzen du. Hartu egiten du.*

Kaixo. Kaixo, laztana. (...) Bai. Hemen naiz. Etxean. (...) Non egongo naiz ba? (...) Zuk deitu duzu. (...) Zuk markatu duzu. (...) Bueno, hemen, hemen da. Zu non zaude? (...) Laztana, ez zaitut gaizki tratatu.

*“Gizonari” begiratzen dio.*

Ondo, ondo. (...) Zer? (...) Aldatuta? Ni, aldatuta? Nola aldatuta? (...) Ez dut ulertzen. (...) Ez dakit zer esan nahi duzun horrekin... (...) Bueno, bai, baliteke... (...) Bai, hemen. (...) Ez. Ez. Ezer ez. Ez, zertxobait, baina ez... (...) Ez. Bueno, niri ez. (...) Ez dakit. (...) Bai. Eskaini diot. (...) Ez. Ez naiz konturatu. (...) *(Gaizki entzuten da)* Ez naizela konturatu. (...) Pixka bat. Ez. Ez dakit. Ane? Ane? Ane? (...) A, kaixo, bai; ez, moztu dela iruditu zait... (...) Ez. Ez, ez nago haserre. (...) Zer? (...) Ez, ahotsa joan egiten da... Non zaude? (...) Zer egiten duzu hor? Zer egiten duzu hor? (...) Bueno, lur azpira jaisten ari baldin bazara, moztu egingo da, noski... (...) Berdin da berria izatea, Ane. Mugikor merkeek ez dute funtzionatzen lur azpian. (...) Bai? (...) Ez dizut ulertzen. (...) Ez, hitzak ez ditut ulertzen. Negarrez ari zara? (...) Eta zer da soinu hori? Mesedez, etzazu negarrik egin... (...) Grabagailua? Ez dakit. Kakanahaste honetan... Ane, hankaz gora dago dena. Zer dakit ba nik non dagoen grabagailua. (...) Gainean, non?

*Mahai gainean ikusten du grabagailua. Funtzionatzen ari dela adierazten duen argia piztuta dago.*

A, bai, hemen dago. Martxan dagoela ematen du (...) Bai? Aizu?

*Eskegi egiten du. "Gizonari". Begiak okertuz.*

Moztu egin da. Bera zen, Ane, nire emaztea; zuk ezagutu zenuen...

*Telefonoak jotzen du berriro. Hartu egiten du.*

A, kaixo. Begira, Ane, zatoz hona eta listo. Nondik?(...) Autobidea ordu honetan gainezka dago-ta. Ez dakit zergatik gidatu behar duzun zuk, zuk ez duzu-ta sekula gidatzen. (...) Zer? (...) Baina ez dago ezer. Oraindik ez ditugu erosketak egin, ez. (...) Gailetak? Ze kaxatan? (...) Ez daukat ideiarik ere. (...) Ea, itxaron pixka bat. (...) Bai, ulertu dizut, itxaron.

*"Gizonari".*

Anek galdetu du zer bait jan nahi ote duzun.

*Etenaldia.*

Gailetak nahi dituzu?

*Etenaldia.*

Gailetak? Txikilin?

*Isilunea. Telefonoan.*

Uste dut ez duela ezer esan. (...) Berarekin? Ezta pentsatu ere! (...) Seguru zaude? (...) Bueno, itxaron.

*"Gizonari"*

Anek jakin nahi du berarekin hitz egin nahi ote duzun.

*Etenaldia.*

Telefonoz.

*Telefonoa eskaintzen dio eta bizkor atzerantz joaten da. Isilunea. Telefonoan.*

Ez, ez du ezer esaten. (...) Bai, hemen da, hemen da. (...) Horixe maite zaitudala, Ane. Maite zaitut. (...) Oraintxe esan dizut. (...) Gaur goizean? Ez naiz gogoratzen. (...) Baina beti esaten dizut. (...) Bai, baina gaurko goiza pixka bat... (...) Ane, mesedez, nahikoa da; ez, gero hitz egingo dugu. (...) Gero hitz egingo dugula. Ane, ezin duzu gidatu, negar egin eta telefonoz hitz egin aldi berean. (...) Zenbatean zoaz? Zenbatean zoaz? (...) Ez, Ane. Esadazu zer jartzen duen neurgailuan. (...) Ez, hori erlojua da. Orratzari begiratu. (...) Bai, mugitzen den orratzari. (...) Zenbat? (...) Seguru zaude? (...) Ya.

*Patxi kezkatu egiten da. Bere burua lasaitzen saiatzen da.*

Ez, ez, ez. Primeran dago dena. Begira, gauza bat egingo dugu. (...) Zera... ea, ea, laztana, polit horrek. Jaitsi abiadura. (...) Bai, bai, bai. (...) Ez... ez, ez, ni lasai nago. Eta zu ere lasai zaude. (...) Nola ezin duzula? Bihotza, jaitsi abiadura. (...) Bale, bale, bale. Oso ondo, ez zaitez kezkatu. Begira, horrela egingo dugu: aurrena utzi negar egiteari, bai? (...) Oso ondo. (...) Orain, ikusten duzu zure eskuineko oina? (...) Zure eskumakoa. (...) Ez, ate ondoan dagoena ez, bestea. (...) Horixe, palanka ondokoa. Oso ondo, primeran. (...) Bueno, ba, orain oin hori erlaxatu behar dugu, pixkanaka-pixkanaka, eta altxatu behar dugu pitin bat pedaletik... (...) Bai, bai, eta horrela abiadura motelduko dugu. (...) Bueno, bueno, bueno. Bai, bai, bai. Eta lasaitzen joango gara, horrela, oso ondo. (...) Ea, laztana: nola dago orratza? Mugitzen ari da? (...) Ze aldetara? (...) Ate aldera. Oso ondo. Oso ondo, negar egin gabe. Eta orain autoa eskumara eramango dugu. Ondo. Eta autoa gelditu.

*Isilunea.*

Geldirik zaude? (...) Eta utzi diozu negar egiteari? (...) Ondo. Toki onean utzi duzu? (...)

*Nahiko haserre.*

Ba, ez dudalako nahi isuna jartzerik. Puntu guztiak galduko dituzu, eta sosik gabe gaude, Ane, ea ulertzen duzun. Niretzat ere ez da erraza. (...) Ni ere sensible nago, ez dakit konturatu zaren. Oso gogorra da etxez aldatzea. (...) Oso egoera estresagarria da mundu guztiarentzat. (...) Estresa eragiten duen bigarren faktorea da; lehena, lagun maite baten heriotza. (...) Ez, estatistika da. (...) Faborez, Ane, ez gara horregatik eztabaidan hasiko, ezta? Bueno, lasaiago zaude? (...) Ondo. Astiro gidatu. Eta zatoz hona. Bai, bihotza. Bai, laztana. Bai. Musutxo bat. (...) Bai. Aio. Aio.

*Eten egiten du. Telefonoa sofa gainean uzten du. Zerbait deskubritzen du arbel magikoa utzi duen mahaiaren gainean.*

Oso ondo. Oso ondo. Ea? Hartu dezaket?

*Arbela hartu eta irakurri egiten du. "Gizonari" begiratzen dio.*

Ka-ez, ke greko... grekoa da... (beste zentzun irakurriz) eme, eme da... ma... ma-ri, maritxu ez, je, je marti martin bai martin.

*Aurkezpenak egiten ditu.*

Martin, Francisco, Patxi, Martin.

*Isilunea.*

Zerbait gehiago idatzi nahi duzu?

*Arbela eskaintzen dio. "Gizonak" idazten duen bitartean:*

Idea ona izan da, ezta? Arbel magikoak hori dauka: edozein gauzarekin idatzi dezakezu, berdin da ez baldin badaukazu ere...

*Atzamarrei erreferentzia garbia eginez.*

Esan nahi dut, idatzi daiteke zuk daukazu zera horrekin ere...

*Erreferentzia egiten dio "gizonak" eskuzat erabiltzen duen auskalo zeri. Patxi arbelari begira dago. Begiak okertu. "Gizona" idazten ari da; Patxik, bitartean, arbelari eusten dio.*

Letra bitxia... Marrazkiak ematen dute, ezta? Ondo dago, marrazkiekin ere badago komunikatzea. Harrigarria da nola gustatzen zaigun (guri, gizakioi alegia) marrazkien bidez komunikatzea, primitiboak bagina bezala. Jokoengatik diot, horrelako asko daude, esate baterako Pictionary...

*Marrazkiak ikusiz.*

A, hartu dezaket? Hau da... zera... Mmm... bai... A, ura... Komuna! Jakina, komuna.

*Bat-batean ulertu duela iruditzen zaio.*

A, komunera... Komunera joan nahi duzu. Martinek komunera joan nahi du. Bai, bai. Horixe. *(Arbela mahai gainean uzten du)* Hemendik. Komunean denetik dago. Komuna da antolatzen dudan lehenbiziko gauza etxez aldatzen naizenean.

*Komunera "laguntzen" dio. Atea zabaltzen du. Gizona "sartu" egiten da.*

Sartu, sartu.

*Patxik atea ixten du. Zain geratzen da pixka batean. Gero, telefonoa dagoen aldera joan eta zenbaki bat markatzen du.*

Kaixo. Ni naiz. Ane, mesedez, noiz etorri behar duzu? (...) Etorri hona, Ane. (...) Horixe nagoela urduri. (...) Ez, ez du ezer egiten. Isil-isilik geratu da. (...) Bai, bai, hemen da, hemen da. (...) Marrazki bitxiak egiten ditu. (...) Arbel magikoan. (...) Bai, nik eskaini diot, idazteko, eta... (...) Bueno, bai, lehena ezabatu egin dut. (...) Eta zer nahi zenuen egitea? (...) Arbel magikoa. (...) Arbel magikoa, Ane. (...) Ez dakizula zer den? (...) Edozein gauzarekin idazten duzu eta gero ezabatu daiteke (...) Ez dakit, iman antzeko zerbait. (...) Ez, ez, pilekin behintzat ez. Benetan ez dakizu zer den arbel magikoa? (...) Freud? Freudek horretaz hitz egiten du artikulu batean? (...) Ezer ez. Gauza ulertezin batzuk. Hasieran pentsatu dut grekoa zela. (...) Bai, grekoz ari zela, baina konturatu naiz ez zela –

E -M- baizik! Martin! (...) Uste dut bere izena dela, Martin! (...) Bai, irla baten marrazkia, urez inguratua. (...) Bai, ur pila bat... (...) Aizu, kokolo deitzen badidazu berriro, eskegi egingo dizut (...) Nola nahi duzu nik jakitea hain garrantzitsua zela marrazki horiek gordetzea... (...) Ez, egarria ez. Uste dut komunera joan nahi zuela. Han da orain. Ane, nire onetik aterata nabil; hemen behar zaitut... Baina itzultzen ari zara? Zenbatean zoaz? Ba gutxitu pixka bat. (...) Abiadura. Ez zait gustatzen hain azkar joatea. (...) Atea? Giltzarekin. (...) Zertarako? (...) Eta nork bahituko du? Ane, nire ustez, bahituta guk daukagu. (...) Abokatu batek gauza bera esango luke... Bai, barruan jarraitzen du. Motelago zoaz? (...) Ez, ez dut uste dutxatzeko gogorik zeukanik. Usainik behintzat ez zeukan.

*Konturatzen da dutxaren soinua entzuten ari dela aspaldian.*

A, bai, dutxatzen ari da. A, jakina, hori esan nahi zuen marrazkian...

*Arbel magikoa hartzen du.*

Noski, ura, pertsona bat etzanda, azpian ura... eta...

*Zerbait ikusten du. Komuneko ate aldera begiratzen du. Kezkaturik.*

Ez, ez. Ura sartzen ari da. Urez betetzen ari da dena. Itxaron.

*Telefonoa utzi eta komunera doa. Atea ireki nahi du. Barrutik itxita dago. Patxik kolpeak jotzen ditu*

Martin, Martin. Ireki atea! Martin! Txorrota itxi behar duzu, Martin!

*Kolpeak.*

Txorrota. Iturria. Izar itxura duen hori. Utzi sartzen. Irekidazu, Martin. Utzi sartzen!

*Ez daki zer egin. Telefonoa hartzen du berriro. Sofaren izkinan eserita dago.*

Ane? Ez dakit zer egin. Urez betetzen ari da dena... Ta niri airea falta zait. Ez du zabaldu nahi. (...) Beheko bizilagunek akatuko gaituzte. (...) Baliteke paniko atake bat izatea. (...) Ez, berak ez, nik! (...) Aizu! Nik ere izan dezaket paniko atake bat, ezta? Mundu guztiak bezala (...) Ez dakit grazia non ikusten diozun. (...) Etorri azkar, Ane. (...) Nik bakarrik ezin dut gobernatu. (...) Etzazu barrerik egin. Zenbatean zoaz? (...) Bueno, pixka bat gehiago ere azeleratu dezakezu, ezta?

*Eskegi egiten du. Komuneko atera hurbiltzen da. Indarrez, zabaltzen saiatzen da, baina sarraila irekita dago eta indarrarekin bainugela barrura erortzen da. Gaizki esaka entzuten dugu, Offen.*

Baina, zer egin duzu? Zer egin duzu?



*Uraren soinua isildu egiten da.*

Hau ezin da egin, Martin... Izugarria da! Zer egin duzu baineran?  
Zergatik egin...?

*Offen burua baineran sartzen dio.*

Nahikoa da? Zergatik? Zer egin dizut nik?

*Telefonoak jotzen du. Patxi bainugelatik irteten da. Blai eginda dago. Telefonoa hartzen du.*

Ane, hau txikizioa! Komuneko paperarekin estali du dena: konketa, bainera, gortina komuneko zuloan sartu du eta bi aguadilla egin dizkit. Badirudi akuario moduko bat egin nahi zuela. Ulertzen duzu? (...) ¿Cómo? (...) ¿Qué abajo? (...) Ah, perdón. Sí. No, creí que era mi mujer que... (...) Sí, sí, ya sé. Ha habido un problema. Lo siento. (...) Un accidente. Ya he cerrado todo. (...) No, baldes no tengo, pero... Ah, lo siento de verdad. En serio. (...) Mire, en este momento no... (...)

*Bainugelatik pilota moduko bat ateratzen da, komuneko paper bustiz egina, jaurtigailu moduko bat. Bizkarrean jotzen du, gogor. PATXI jiratu egiten da. Beste bola batek aurpegian jotzen du bete-betean. Telefonoz.*

Lo siento, ahora no puedo; después bajo. (...) Que después bajo.

*Moztu egiten du. Beste bola bat ateratzen da bainugelatik. Eta beste bat. Eta beste bat.*

Mesedez, nahikoa da. Nahikoa dela, Martin! Geldi!

*Patxik bolak hartu eta bainugelarantz jaurtitzen ditu. Bola-borroka.*

Egon geldi! Geldi egoteko!

*Patxiren boletako batek indarrez jotzen du zerbait. Aienea entzuten da. Begi-bistakoa da Patxik bete-betean asmatu duela. Isilunea.*

Bueno, orain berdinduta gaude, ezta?

*Isilunea.*

Lagunak izan gaitezke, ez? Min egin dizut? Aizu Martin, min egin al dizut?

*Bainugelara gerturatzen da. Atearen ondoan geratzen da.*

Martin, lurrean utziko dut eta sartu egingo naiz... Martin, sartzen ari naiz.

*Bainugelara sartzen da. Isilunea. Patxiren xuxurlak entzuten ditugu Offen.*

Lasaiago zaude? Lasaitu gara denok, ezta?

*Patxi bainugelatik irteten da berriro Martin aurrez aurre duela.*

... Bai, lasai gaude. Barkatu lehen garrasika hitz egin badizut. Baina egia esan, egoera honetan, zure jokaera...

*Bat-batean, gelditu egiten da. Badirudi "gizonak" ez diola mugitzen uzten.*

Itxaron, zer ari zara? Itxaron pixka bat, mesedez, nik ez...

*Indarra egiten badu ere, ezin du "gizona" gainetik kendu.*

Askatu; askatu, mesedez.

*Baina Patxi mugitu ezinda dabil, "gizonak" sofa gainean zapalduta dauka. Besoarekin radiokaseta botatzen du.*

Faborez eskatzen dizut. Ezin dut arnasarik hartu. Mesedez. Zer? Baina ez dut ulertzen zer esaten duzun. Ez dizut ulertzen. Ez dizut ulertzen!

*Patxi indarrez bultzatzen dute. Lurrera erortzen da. Ondoren, sarrerako atea zabaltzen da. Patxi hizketan ari da lurretik altxatzen den bitartean.*

Nora zoaz? Aizu, nora zoaz? E, Martin, Martin!

*Isilunea. Atea ixten du, arazorik gabe. Erlaxatu egiten da. Telefonoa hartu eta zenbakia markatzen du.*

Ama? Ni naiz. (...) Gutxi gorabehera. (...) Bai. Iritsi gara. (...) Bai, ekarri dugu dena. (...) Bai, gasa badago; Ama! etxe bat da, ez kanpin denda bat. (...) Ez, ez da handia, kontatu nizun; plano eta guzti egin nizun. (...) Lau solairu dira, igogailurik gabe. (...) Zergatik? (...) Bueno, ez zaizu gaizki etorriko ariketa pixka bat egitea. (...) Bale, bale, gonbidatuko zaitut igogailua jartzen dutenean. Faborez, ama, nahikoa da! Bale? Gaur pixka bat urduri nabil. (...) Ez, apartamentua ondo dago, ez da hori. Baina hemen badago zerbait... (...) Nola?, kontatu dizu Anek? Noiz? (...) Baina orain, noiz? (...) Telefonoz? (...) Eta zer kontatu dizu? (...)

*Isilune luzea.*

Bai, bera zoratzen dabil. (...) Ez, ez dakigu nondik atera den. Hemen zegoen lehendik, antza denez. (...) . Ez da garbi ikusten. (...) Ba, hori, ez dela garbi ikusten. (...) Geldirik dagoenean, begiak biltzen badituzu irudia fokutik atera nahiko bazenu bezala, ba orduan erdizka ikusten da. (...) Bai, hiru dimentsioko marrazkiak bezala. (...) Hiru dimentsio. (...) Egia da, bai. (...) Aaa! Jada ez duzu arazorik lau pisu igotzeko. (...) Ez, ni Anerekin nago kezkatuta.

Baliteke berak dioen bezala izatea: oftalmologiaren miraria. (...) Baina, nire ustez, beroegi dabil kontu honekin, badirudi beka bat lortu beharrean, ez dakit zer irabazi behar duela... (...) Ez, orain ez dago. (...) Bueno... joan egin da. (...) Bai, joan egin da. (...) Ba al dakit ba nik! (...) Ezidazu garrasirik egin. (...) Ez, nik ez dut bota. Bakarrik joan da. (...) Bai, berak zabaldu du, bai; eta nik zer dakit zerekin; ba eskuarekin, edo daukan zera iletsu horrekin, ez dakit... (...) Ba, berezia agian bai, baina ez zait oso pertsona interesantea iruditzen. (...) Begira, ama, zaila da ikusten, ezin da berarekin zentzuzko elkarrizketarik egin, eta erne, nahiko agresiboa da. (...) Nirekin, behintzat. Badirudi Anerekin hobeto moldatzen dela, horregatik nahi dut lehenbailehen etortzea. (...) Badakit. Iristen denean, haserretu egingo da nirekin. (...) Ni ere urduri nago. Oso. (...)

*Kaleko atea bakarrik zabaltzen da, PATXI konturatu gabe. Ixtean, Patxik kisketaren hotsa entzuten du. Telefonoan.*

Itxaron, itxaron.

*Ate aldera begiratzen du: itxita dago. Isilunea. Burutik uxatzen du ikusi uste duena. Telefonoan jarraitzen du.*

Ez, ezer ez, ezer ez. Ez da ezer gertatzen. (...) Zer? Ez naizela goxoa? Eta nirekin nor da goxoa?, e?, jakin liteke? (...) Ez, ez da iritsi ta dagoeneko hemen behar luke. (...) Ez, ama, hobe duzu ez etorri!

*Bat-batean, isildu egiten da. Baten batek ukitu balu bezala sentitzen du. Zutitu egiten da, asaldaturik. Telefonoz.*

Ez, ez da ezer gertatzen. (...) Ez, ama, ez da ezer gertatu. Moztu. Moztu, eta gero deituko dizut.

*Moztu egiten du. Telefonoa patrikan sartzen du. Espazioaren erdialdean kokatzen da. Begiak behartu eta gela osoa korritzen du Martin enfokatu nahian. Telefonoak jotzen du. Patxik hartu egiten du.*

Kaixo. Ah, sí. ¿Qué tal? (...) Ah sí. Ya voy. (...) Tercero “C”, sí. Ya voy. (...) No, baldes no hay ni uno, pero puedo llevar un par de cazuelas. (...) Sí, cómo no. Ahora voy. (...) Ahora mismo voy. (...) Primero cuelgo y luego voy, ¿vale?

*Eskegi egiten du. Sofa gainean uzten du telefonoa. Sukaldera doa. Handik pixka batera, lapiko batzuekin azaltzen da. Apartamentutik irteten da. Isilunea. Dena geldi-geldi dago, baina “gizona” han dago. Bat-batean atearen kisketa bakarrik mugitzen da, eta irteera*

*oztopatzen du. Isilunea. Zarata atean. Atea ezin da zabaldu, kisketa itxita baitago.*

**Ane**

*Kanpotik.*

Patxi! Hor zagoz? E, Patxi! Kisketa itxita laga dozu.

*Etenaldia.*

Laztana! Ze pasetan da? Ezteustazu berba eiñ gura?

*Etenaldia.*

Patxi, iriki atea oaintxe bertan, enao umore onen!

*Soinuak barrualdean.*

Bakitx hor zagozela. Entzun eitxen deusut.

*Isilunea. Bat-batean, Ane ate joka hasten da amorraturik.*

Atea irikiteko esan deusut. Iriki atea! Eztozu ulertuten, ala? Bakitx ze eiñ dozun. Beraz, laga tontakeriak eitxeari ta iriki atea.

*Kisketa “bakarrik” mugitu eta atea zabaltzen da. Ane oldarrean sartzen da.*

Beitxu, entzun...

*Barruan inor ikusten ez duenez, gelditu egiten da. Zertxobait minberatuta dator. Kolpe bat dauka kopetan. Arropa pixka bat hautsita, zikinduta agian.*

Ta oaiñ, non sartu zara?

*Isilunea. Sukalde edo bainugela aldera hitz egiten du, Patxi bi toki horietakoren batean delakoan.*

Aitxu, denporia behintzat izan dozu hau dana apur bat txukunduteko. Non zagoz? Patxi, erantzun.

*Bainugelako atearen hotsa. Ane hara hurbiltzen da.*

Maitxi.

*Isilunea.*

Bixotza.

*Isilunea.*

Hasarratuta zagoz? Hasarratuta zagoz neugaz? Ezteustazu erantzun bihar, ala? Ni aleinyu naz ahalik eta aguroen etorten, benetan. Ulergarria da neugaz hasarratuta eotia... Baina... baina...

Hasarratuta neu nago; bai, hasarratuta nago, joaten laga deutzazulako. Kokoloa zara gero, kokolo erabatekoa, Patxi, iriki. Beitxu, nigatxik hor sartuta emon daikezu egun osu gura badozu. Tentel hutsa zara, ta ganorabakoa. Zeaitxik aldrebesten dozu beti dana? Jakin leiteke zeaitxik? Hain gauza gatxa eskatu deutsut? Hain konplikatua? Ni zoriontsu eitzekeo eskatu deutsut? Ez! Eskatu deutsut MARTIN hemen barruan edukiteko apur baten. Eta zure amak kontatu deust joaten laga deutzazula. Autobidean nentorren, aldapan beheara, etxeruntz, eta zure amak deitxu ta dana kontatu deust. Sutan ipini naz, amorratzen: autoaren kontrola ta dana galdu dot. Bat-batean enekixen ze aldetara moitxu bihar neban bolantia; ta zihero nahastu naz pedalekin. Gorrotoa neutsun, Patxi. Une horretan itzelezko gorrotoa sentitxuot zeure kontra: pentsau dot propio eiñ deustazula. Ta astakeriak esaten hasi naz, ta zeure ama ni lasaitzen aleinyu da, ta zea horren kontra joan naz, zera, autobidean dagoen burdinazko gauza horren kontra. Ta auto geixau etorri da neure atzetik. Ta gurutzata geratu naz aldapan erdi-erdixan. Atzetik etorri diren autoetako batzuk, nigaz talka ez eitzekeo seguruenik, balantzaka hasi dira ta, ta zea... barandaren kontra jo dabe, bueno baranda edo dana dalako horren kontra. Eta jauzten hasi dira, bai, autoak jauzten hasi dira autobidetik Katalina Erausora, bata bestearen atzetik. Eztakitx zenbat auto jauzi diren. Sekulako deskalabrua. Ta deskalabruari begira nengoela, pentsatu dot erru guztixa zeuria zala. Sutan ipini nozulako. Eta ni enaiz hil txiripaz. Kolpe txiki bat hartu dot kopetan, eta beste bat paparrian, hemen, bolantearen kontra jota. Eneraman segurtasun-uhala ipinita. Konturatu zara apurtuta dagoela? Zeaitxik eztozu ba konpondu?

### *Isilunea.*

Autotik bajatu naz. Sekulako iskanbila zegoan. Jentea txilioka. Bozina-zaratak. Polizia aguro etorri da, anbulantzia be bai, baita telebistakoak be. Jentea ahal zeban moduan urten da autoetatik. Kea zegoan. Autoetako batek su hartu dau. Jentea oihuka, laguntza eske, autoetatik urten ezinik. Oihu asko etziren ulertuten. Batzuk laguntzera joan dira. Umeak be bazegozan, nora ezean, negar-zotinka eta amari deiarka, edo atxari. Nik ezin neban zirkinik be eiñ, benetan. Ikaragarria zan dana. Jenteari begiratu deutsat: aurpegi asko zikin-zikinak, batzuk elkarri laguntzen aleinyu dira. Nik eneban begiratu be eiñ gura. Eta aurpegi bat ikusi dot odolez blai, neiri begira-begira. Pentsau dot gizona hiltzen ariko zala-edo... eta aurrera jarraitxu dot. Eta hori izan da arraroena, ze emoten zeban niri etzitzaidala ezer pasetan. Auto txikituen artean ibili naz. Bai,

azkenean urten naz autobidetik. Ta hona etorri naz, oinez. Bidean asko pentsau dot. Asko pentsau dot gure artekoaz.

*Isilunea.*

Gorroto zaitxut, Patxi.

*Isilunea.*

Izugarri gorroto zaitxut.

*Isilunea.*

Izugarri maitxe zaitxut. Eztakitx zelan esan. Hainbeste gabiltza aleginduten. Bakitx zeu be gogotik zabilzala aleginduten, Patxi. Bakitx maitxe nozula. Eta neuk be maitxe zaitxut. Izugarri maitxe zaitxut. Baina arinegi goaz. Zeaitxik eiñ bihar da dana zalapartaka? Dana ziztu bizian, estu ta larri beti. Beitxu, gaur, hori jenteori autobidean zegoan, auto barruan harrapatuta. Inor pe ezta inora ailegatu. Eztakitx oso ondo ze esan gura doten, Patxi. Baina milaka galdera etorri jataz burura. Zuri etorri jatzuz inoiz milaka galdera burura? Baina benetako galderak: nor zaren, zer gura dozun, eta halakoak?

*Isilunea.*

Zuk magia-trukuak eitxen dituzu, jentea animetan dozu, baina magoa zara? Benetako magoa zara? Patxi, benetan galdetzen deutsut, enabil ezer aurpegiratu guran. Benetan galdetzen deutsut. Neuk be eztakitx oftalmologia ete dan neure bizitza. Auskalo. Topatu dogun "izaki" horrek beste norabait eroango nindualakoan nengoan. Uste neban sentiaraziko ninduala... eztakitx gustura neure buruagaz.

*Isilunea.*

Baina enao gustura neure buruagaz, Patxi. Eztaukot bihar dotena, bakixu? Zu ezagutzea ezta bizitzan gertatu zaidan gauzarik onena. Hori ezta egixa. Zuk enozu zorientsu eitxen. Ta zeure betebiharra da, bakixu? Zeure betebiharra da neu zorientsu eitxea.

*Apartamentuari begira.*

Eta apartamentu hau izugarri zatarra da, Patxi. Hau da lortzerik izan dozun onena, ezta? Ba, zeuretzat onena dana neuretzat halako kaka puska da.

*Isilunea.*

Barkatu. Barkaixu, mesedez. Eztakitx zer daukoten. Nik zu ondo eotia gura dot, benetan. Etzaitut mindu gura, baina urten eitxen jat.

*Isilunea.*

Mesedez, esaizu barkatzen deustazula. Patxi, erantzun. Patxi! Mesedez, esaizu zerbaitx. Enabil ezer berezirik esaten. Bixok lehendik pentsatuak ditugun gauzak dira. Eztogu inoiz horretaz berba eiñ, baina pentsau bai, bixok pentsau dogu, bakotxak bere aldetik. Biharbada, ezta oso ideia ona izan bixok bizitzen hona etortea. Eztot gure harremana apurtu gura. Patxi, eztot hori esan gura. Iriki, Patxi, mesedez. Baina ze arraio eitxen zabilta komunean sartuta? Francisco, jakin leiteke ze arraio zabiltzan hor?

*Bainugelako atea "bakarrik" zabaltzen da. Zerbaitek kezka eragiten dio. Ahotsa apalduz.*

Patxi?

*Ane bainugelatan sartzen da astiro-astiro. Isilunea. Bat-batean garrasi bat entzuten dugu. Ane bainugelatik irteten da Martini begira eta atzeraka ibiliz; Martin, berriz, aurreraka.*

Aaaaaa... zu zara. Zu zengozan hor barruan. Uste neban... Eta Patxi? Ez dozu ikusi? Patxi, esan gura dot. Bai, antz haundia dauko neugaz.

*Keinu bat egiten du esan nahi duena aditzera emateko. Atzeraka jarraitzen du, liluratuta eta beldurtuta aldi berean. Bat-batean gizonak eskutik heltzen dio.*

Zer gura dozu?

*Martini begiratzen dio. Zerbaitek arbel magikoa dagoen mahai txikira bultzatzen du.*

Mahaia...? Zapatak...? A, blok magikoa gura dozu?

*Arbel magikoa hartu eta eskaini egiten dio.*

Bai, oraintxe emongo deusut.

*Etenaldia.*

A, marrazten zabilta? Primeran.

Lasai, ez dot begiratuko.

*Ane arbel magikoan agertzen ari den marrazkiari begira dago.*

Mmm. Ta zer da hau? Pertsona bat? Gezi bat? A, bai, gezia da.

*Martinek Aneren eskuak gidatzen ditu. Ane jabetzen da geziak behera aldera seinalatzen duela.*

Zapatak ostera be? A, ez. Mahaia, zer...? A, a, grabagailua. Grabagailua ipintea gura dozu? Horixe, oraintxe ipiniko deusut. Play!

*Grabagailua pizten du. Baina ez da ezer entzuten.*

Hutsik dago, dirudienez.

*Gizonak arbel magikoa hartzen du.*

Zer?

*Anek ikusten du gizonak beste marrazki bat egiten duela.*

Beste gezi bat? A, gezi bi.

*Gizonak grabagailu aldera makurtzen du arbela.*

Gezi bi, grabagailua; gezi bi, grabagailua... A, rewind? Rewind. Atzeraka botako dot.

*Birbobinatzeko tekla sakatzen du.*

Holan ederto dago?

*Play sakatzen du berriro. Zintan Patxiren ahotsa entzuten da:*

## **Patxi**

...No, baldes no tengo, pero...

## **Ane**

Patxi. Hori Patxi da.

Ez, nik ipini dot grabagailua, entzuteko zuk zerbait... Alegia, grabatu gura neban zuk esandako guztia; izan be...

(*Kolpea*) Begira, ni oftalmologoa naz eta... Bueno, oraindik ez naz, ikasgai bi geratzen jataz erabateko oftalmologoa izateko. (*Kolpea*) Bueno, egia esateko, lau, baina lauhilabetekoak direnez, (*Kolpea*) ba bi balira moduan kontaktzen ditut...

*Grabazioa entzuten du.*

## **Patxi**

*Grabazioan.*

... Ah, lo siento de verdad... En serio. Mire en este momento no... (...) Lo siento, ahora no puedo; después bajo. Que después bajo.

(...) Martin nahikoa da, (*Kolpea*) Martin (*Kolpea*) Martin...

*Grabazioan komuneko paper bustiarekin egindako jaurtigailuaren hotsa entzuten da. Beste kolpe bat eta Patxiren*



Zer da hori zarataori?

*kexa.*

“Mesedez, nahikoa da. Nahikoa dela! Bale!”

**Patxi**

*Grabazioan beste kolpe bat. Eta beste bat. Eta beste bat.*

“Martin! Martin! Martin!”

*Garrasia eta kolpeak entzuten dira. Zarata gehiago grabazioan.*

**Ane**

*Entzuten duen bitartean, gizonari.*

Zer gertatu da? Zer dira zarata horiek?

*Grabazioko zaratak isildu egiten dira. Altxatu egiten da.*

**Patxi**

*Grabazioan.*

“Bueno, orain berdinduta gaude, ezta?”

**Ane**

Berdinduta, zertan?

*Grabazioan aieneak.*

**Patxi**

*Grabazioan.*

“Min egin dizu? Aizu, min egin al dizut?”

**Ane**

Min egin deutsu? Patxik min emon deutsu?

*Grabazioak eteten dio.*

**Patxi**

*Grabazioan:*

“...Martin, sartzen ari naiz...”

*Etenaldia.*

**Ane**

Non sartu da?

**Patxi**

*Grabazioan:*

“...Lasaitu gara, ezta?... Itxaron, zer ari zara? Itxaron pixka bat, mesedez, nik ez...”

*Borrokan ari direla adierazten duen hotsa.*

**Ane**

Zer gertatu da? Zer egin deutzazu Patxiri?

**Patxi**

*Grabazioan.*

“Askatu; askatu, mesedez.”

*Hots gehiago.*

“Faborez eskatzen dizut. Ezin dut arnasarik hartu...”

*Grabazioa eten egiten da. Anek kasetea ateratzen du. Begi-bistakoa da zinta amaiturik dagoela eta ez dagoela besterik grabatuta. Buelta ematen dio kaseteari.*

**Ane**

Zer egin deutzazu? Ito egin dozu? Patxi ito dozu?

*Hiru kolpe jotzen ditu atean. Komunean sartzen da.*

Non dago Patxi? Non dago Patxi? Zer egin deutzazu?

*Komunetik ateratzen da.*

*Atzerantz egiten du, gizonaren mehatxua sentitzen baitu.*

Ezidazu ezer egin, e? Nik ez deutzut ezer egin. Ni...

*Atzera egitean, Anek objektu sendo batekin topo egiten du. Eskuetan hartu, altxatu eta gizona jotzen du. Gizona "erori" egiten da luze-luze. Giltza-hotsak atean.*

Nor...?

*Patxi sartzen da. Ane lasaitu egiten da berehala.*

Patxi. Ai, Patxi, zeu zara-ta. Eztakixu zelako sustoa hartu doten. Pentsau dot zerbaix larria gertatu jatzula, berak... Nik uste neban komunean zengozala. Enekixen bera zala barruan zegoana. Eta pentsau dot ito eiñ zaitxueta. Ikaragarria izan da. Istripua izan dot, Patxi. Autoa txiki-txiki eiñda geratu da, eta aseguruua pagatu barik dekou, ezta?

*Patxi besaulki batean esertzen da, zirkinik egin gabe. Ez du ematen entzuten dionik Aneri.*

Ni autobidetik nentorren, eta...

*Patxi zutitu eta Anerengana hurbiltzen da. Telefonoa hartzen du. Anek besoa ukitzen dio maitekiro. Patxi izutu egiten da.*

**Patxi**

Zu berriro? Bueltatu egin al zara?

*Hutsera begiratu.*

**Ane**

Neu naz, Patxi. Patxi.

*Patxi telefonoa hartu eta zenbaki bat markatzen du.*

**Patxi**

Ama. Ni. (...) Bai, ikusi dut. Ez, bizilagunen telebistan. Zuk ere ikusi duzu autoa? Gurea zen ezta?

**Ane**

Hemen naz, Patxi. Zeaitxik ezteustazu entzuten?

**Patxi**

*Telefonoz (Amari)*

Hara noa, ama.

**Ane**

Ze dabil pasetan, Patxi? Patxi!

**Patxi**

Ez dakit, Aneren bila.

**Ane**

Patxi! Hemen naz.

*Besarkatzen saiatzen da. Patxi haserretu egiten da.*

**Patxi**

Nahikoa da! Nahikoa da! Zoaz hemendik! Zoaz!!

*Telefonoan.*

Ez, ama, ez etorri. (...) Ba, banoalako. Istripua gertatu den tokira.  
(...) Oso gaizki sentitzen naiz, ama.

**Ane**

Ze pasetan da? Ze pasetan da, Patxi? Patxi!

**Patxi**

*Telefonoz.*

Bai, gero deituko dizut. Agur.

*Moztu egiten du. Irteera aldera doala, estropezu egiten du Martinen “gorpuarekin”. Begira geratzen da. Makurtu egiten da. Han dagoela baieztatzen du. Ane begira geratzen zaio. Gero Patxi irtetera doa.*

**Ane**

*Besotik heltzen dio.*

Patxi.

**Patxi**

Utzi! Nahikoa da! (...) Zu al zara? Zenbat zarete? Zenbat zarete?

**Ane**

Zeaitxik enozu ikusten, Patxi?

*Geldiarazten saiatzen da.*

Patxi, ze pasetan da? Ze dabil pasetan?

**Patxi**

Utzi! Utzi!

*Irten egiten da. Anek dagoen tokian jarraitzen du. Oraindik ez da jabetu zer gertatzen ari den benetan.*

*Iluna.*

## 2

*Sei hilabete geroago. Apartamentua antolaturik dago. Dena bere tokian. Patxi bakarrik bizi da orain. Sei hilabete iragan dira Ane hil zenez geroztik. Bikote irribarretsuaren argazkia ikus daiteke apalen baten gainean.*

*Musika jaso. Patxi agertzen da, magoz jantzita eta koilara bat eskuan duela. Sarrera ikusgarria egiten du. Apartamentuaren albo batetik bestera mugitzen da esku artean daraman koilarak izugarrizko garrantzia balu bezala. Ondoren, erdiguneko mahai txikira hurbiltzen da eta han uzten du koilara. Eskuak jarrera "magikoan" jartzen ditu. Hitz hauek deklamatzeko ditu:*

### **Patxi**

Gooo... rantz!

*Isilunea. Patxi koilarari begira: geldi dago. Errepikatzen du:*

Gooo... rantz!

*Ez da ezer gertatzen. Jarrera aldatu gabe.*

Ane? Ane!

*Jarrera desmuntatu eta grabagailu aldera doa. Itzali egiten du.*

Ane, hemen al zaude?

### **Ane**

*Sukaldetik sartuz. Zerbaiten bila dabil, antza.*

Bai.

### **Patxi**

Ane?

### **Ane**

Hemen naz.

### **Patxi**

Hemen baldin bazaude, ukitu.

*Anek ukitu egiten du.*

Ondo. Ondo al zaude? Jarraitu behar dugu, Ane, faborez...

*Anek aurkitzen du bilatzen ari zena. Arbel magikoa da. Zerbait idazten du ganean. Argitu behar da egongelan badagoela orain beste arbel handiago bat ere, komunikaziorako bideak zabaltzearren. Anek arbel magikoa hurbiltzen dio Patxiri. Patxik erantzuna ematen dio irakurri berri duenari.*

Hitz egin nahi duzu. Ez, ez. Orain ez. Gero. Garbi dago? Gero.

## **Ane**

*Hitz egin egiten du, nahiz badakien Patxik ez diola entzuten. Baina ezin dio gogoari eutsi.*

Baina nik berba eitzeko premia daukot. Nik...

## **Patxi**

Erne. Hasi egingo gara. Ane, zure lekura. Prest zaude?

*Musika jartzen du berriro. Errepikatzen du hasieran egin duen sarrera zeremoniatsua eta ikusgarria. Mahaira hurbiltzen da; ganean, koilara.*

Gooo...rantz!

*Anek koilara hartu eta igo egiten du. Eta hala, airean "zintzilik" geratzen da. Patxik mugimendu batzuk egiten ditu airean, eta koilara haien "atzetik" doa.*

Eta orain... gorago.

*Keinu bat egiten du eskuaz. Anek koilara altxatzen du. Koilara "altxatu" egiten da.*

Ezer ez... ezer ez... ezer ez...

*"Ezer ez" bakoitza esatearekin batera, eskua pasatzen du koilara azpitik, frogatu nahi baitu ez dagoela batere haririk koilarari eusteko. Aneri.*

Aldaketa!

*Bizkor, Patxi Ane zegoen lekura aldatzen da; eta Ane, berriz, Patxi zegoen aldera.*

Eta orain... Gorago!

*Beste keinu bat egiten du. Koilara are gorago igotzen da. Anek ahal duen bezain gora.*

Eta gorago...

*Patxik beste keinu bat egiten du. Baina koilara ez da igotzen.*

Igo aulki batera.

*Koilara ez da mugitzen.*

Igo aulki batera, Ane.

*Anek etsi egiten du. Musika-ekipora hurbildu eta itzali egiten du.*

Ez, Ane, zertan ari zara?

*Anek arbel magikoa hartu eta idazten du.*

**Ane**

Nekatuta nago.

*Patxik irakurtzen du arbelean.*

**Patxi**

Nekatuta? Zer dela eta?

**Ane**

*Idatziz.*

Ezin naz nekatuta egon?

**Patxi**

Kolpe-zorrik ez duzu-ta jotzen egun osoan.

*Irakurriz.*

“Osoan”? Zertaz ari zara, Ane? Zertaz ari zara? Jarri, jarri hemen zertaz ari zaren, mesedez...

*Anek idatzi egiten du. Erakusten dio.*

Ez, Ane. Bista kristo bat eginda daukat. Badakizu zer esan zidan okulistak.

*Anek berriro idazten du. Patxik irakurtzen du. Pentsatu egiten du. Azkenean, egingo duela erabakitzen du.*

Baina, aste honetan azkeneko aldia da, bale?

*Ane poz-pezik. Toki egokian jartzen da: aulki birakarian. Patxi besaulkian esertzen da. Aurrez aurre daude. Patxik bista behartzeko*



*imintzio ezaguna egiten du, Ane enfokatu nahian. Lortzen ari dela dirudi.*

Ikusten zaitut.

*Elkarri begiratzen diote une batez. Biak irribarrez.*

**Ane**

*Ondo ahoskatu nahian.*

Kaixo.

**Patxi**

*Aneren modulazioari adi, ulertu nahian.*

Kai... xo. Kaixo?

*Erantzun egiten dio.*

Kaixo, Ane.

*Pixka bat lasaiago begiratzen dio.*

Oso guapa zaude.

**Ane**

Eskerrik asko. Gustura... zagoze...?

**Patxi**

“Gustura zagoz”...?

**Ane**

Zagoze.

**Patxi**

Gustura, ni? Bai horixe.

**Ane**

Ez. Zuek “zagoze”?

**Patxi**

Nortzuk?

**Ane**

Neska eta zeu.

**Patxi**

Neska? Neska! Ze neska? Ezin dizut gehiago begiratu, sekulako mina daukat begietan.

**Ane**

Ez, ez, ez.

**Patxi**

Bai, utzi egingo diot begiratzeari, Ane. Barkaidazu.

*Utzi egiten dio begiratzeari.*

Maitia, kolirioa.

**Ane**

“Hau ere ez litzateke truku txarra izango, maitia.”

**Patxi**

Badakizu maitia, hau ere ez litzateke truku txarra izango.

**Ane**

Iriki begiak.

**Patxi**

Itxaron, maitia, begiak irekiko ditut.

*Kolirioa ematen dio.*

*Ane arbel handira joan eta idatzi egiten du. Bitartean, Patxik hizketan jarraitzen du aulki birakariarekin, Anek han segitzen duelakoan. Tantak jartzen ditu begietan.*

Bai, neska batekin aritu naiz HIZKETAN. Telefonoz. Nekane izena du. Eta laguntzaile moduan kontratatzeko asmoa dut. Arazoren bat?

*Anek arbelean idazten du: “Oheratu zara beragaz?”. Eta txilina jotzen du. Hala egiten du Patxiri jakinarazi nahi dionean arbelean mezuren bat idatzi diola. Patxik irakurri egiten du.*

Ez, ez naiz oheratu berarekin. Nola oheratuko naiz ezagutu ere egiten ez dudan neska batekin?

*Telefonoak jotzen du. Patxi hartzera doa, eta bitartean hizketan jarraitzen du.*

Ane, paranoiak jota zaude. Nik...

*Baina Patxi aparatua hartzera doala, Anek hartzen du.*

Zer ari zara, Ane? Emadazu hori. Emadazu.

*Ane mahai gainera igo eta besoa altxatzen du telefonoari eutsiz.*

Emadazu! Emateko! Produktorea izan daiteke.

*Patxik salto egin eta telefonoa harrapatzen dio.*

Kaixo. Inazio? (...) Bai. (...) A, ez, uste nuen beste norbait... (...) Ez, uste nuen produktorea zela. (...) Uste nuela Inazio zela, produktorea... (...) Bai, hemen naiz. (...) Ezer ez. (...) Entsegu txiki bat egiten. (...) Urduri? Baliteke. Pixka bat.

*Anek arbela hartu eta idatzi egiten du: “Nor da?”. Kolpe bat ematen dio arbelari, Patxik hara begira dezan. Patxik begiratu bai, baina ez dio ezer erantzuten. Hizketan jarraitzen du.*

Entsegua egiten. (...) Eta galdera bera egiten badidazu, nik gauza bera erantzungo dizut. (...) Bai, bihar. Hamarretan. Jaso duzu gonbita?

*Ane telefonora hurbildu eta hariaren beste aldean nor ote dagoen asmatzen ahalegintzen da. Patxi gaineratik kentzen saiatzen da. Telefonoz.*

Itxaron pixka bat.

*Telefonoa aldentu eta mikrofonoa estaltzen saiatzen da esku-ahurrez. Oihu egiten du ahotsa apalduz.*

Geldi, Ane! Geldi! Ama da.

*Isilunea. Ziurtatzen du Ane lasaitu egin dela. Telefonoz berriro.*

Kaixo. (...) Ez. Inorekin ez. (...) Ez, ez dizut zuri ezer esan. (...) Ez, ez nago inorekin. (...) Ondo nago. (...) Ondo nagoela, ama. (...) Gonbita bidali nizun: han ikusi nahi zaitut. (...) Zertarako nahi duzu deitzea? (...) Ez, orain ezin dut hitz egin. Okupatuta nago. (...) Inorekin ez. Inorekin ez, esan dizut.

*Sarrerako atea zabaltzen da. Berriro ixten da. Patxi ateari bizkarra emanda dago, ez da ezertaz jabetzen eta hizketan jarraitzen du.*

Bai, saiatzen ari naiz, ama. Saiatzen ari naiz bititza propioa izaten, bai. Eta hori egiteko, besteak beste, moztu egin behar dizut.

*Aldi berean, Patxik amarekin jarraitzen du telefonoz, eta bitartean Ane Martinekin ari da. Aneren jarduna bakarrik entzuten dugu.*

## **Patxi**

Nik ez dut joan nahi. (...) Ez dut hilerrira joan nahi. (...) Ez ditut atsegin hilerriak. (...)

*Txilina entzuten du eta irakurri arbelean idatzita dagoena. Telefonoz.*

Itxaron pixka bat.

*Mikrofonoa estali eta Martin agurtzen du xuxurlatuz.*

Kaixo, Martin.

*Telefonoa seinalatzen du.*

Amarekin ari naiz.

## **Ane**

*Garbi dago Anek ez duela batere arazorik Martin ikusi eta entzuteko.*

Kaixo, Martin. (...) Hemen. Hainbestean. (...) Bueno, bai. Nekatuta. Makal, ez; apur bat nekatuta.

*Hizketan ari dela, arbel handira hurbiltzen da, Patxiren atzera, eta idazten du: "Martin iritsi da". Txilina jotzen du.*

Gutxitan begiratzen deust. Gaur behin. (...) Bai, pare bat minutu.

*Telefonoz berriro.*

Kaixo. (...) Ez, ez da ezer gertatzen. (...)

Bista nekatzen ei jako, eta okulistak esan deutso... (...) Ez, ez da aitzakia. Nekagarria da geuri begira egotea. (...)

Ez, ama. Ez dut ahaztu Ane.

Zuri, ez dakit; ikusi ere ez zaitu egiten ja. (...)

Ez, kontua ez da ez deustala begiratu gura; ja ez nau ikusten, oso desberdina da. (...)

Nik Ane izugarri maite dut.

Bueno, kosta egiten jako. (...)

Maite nuen.

Bai, ahalegin haundia. Betaurrekoak ipini bihar izan ditu. Ez dot gura itsu geratzea. (...)

Ez niri berriro esan zer sentitzen dudan eta zer ez dudan sentitzen, zu ez zara ni eta. (...) Ez nabil beste neska batekin. (...) Nire laguntzailea. (...)

*Ane konturatzen da Martin sukaldera doala.*

Ba, bai, molda naiteke ni bakarrik, baina mago guztiek laguntzailea dute eta orain badaukat nola ordaindu. (...) (...) Arraroa? Nire trukuak? Magia-trukuak dira. (...) Ez, ez dizut esango nola egiten ditudan. Sekretua delako ama!

Nora zoaz? Ez hartu gailetatxoak!

*Sukalde aldera doa. Zaratak entzuten dira.*

*Inguruko iskanbila entzutean, telefonoari.*

Itxi gailetak. Nik zabalduko deusut. Ez, Martin! Ez.

Itxaron.

*Garrasi batean.*

Martin, nahikoa da! E?!

*Martinek objektuak "botatzen" ditu. Ane sukaldetik irteten da*

*Telefonoan.*

Ezer ez. (...) Ez da ezer gauzak jasotzera.  
gertatzen. Ondo nago. (...)  
Zarata, ze zarata?

*Berak ere zaratak eginez.*

(...) A. Eta zer esan du  
medikuak?

Martin, nahikoa da!

Zatoz hona. Jarri hemen. Eta  
txintxo.

*Martin itzuli egiten da eta Aneren  
ondoan esertzen.*

Ez ipini oinak sofa gainean. Eta  
zeuk be ez. (...) Ezetz.

Ez! Berak maite nau. Eta zu  
jeloskor zagoz. (...) Aizu, Martin,  
zer uste dozu, ez naizela  
konturatu? (...)

*Patxiri begiratzen dio.*

Aldatuta? Zelan aldatuta? (...)  
Bai, litekeena da. Baina hobera,  
neuri esker (...) Bakean itxi? Bai  
zera. (...) Berak ez nau itxiko.  
Eta ezidazu berriro esan itxi  
egingo nauela, ze ez nau itxiko.

Bai.

Bai.

Bai.

Baietz.

Ez.

Ez.

Ezetz

*Isilunea.*

*Barrez.*

Ama, medikuak ez dizu esan  
hiltzeko zorian zaudenik. (...)

Ez. Ahaztuta zutaz egongo dira.  
Patxi ez da ahaztu nitaz. (...)  
Eta segi bainatzera, itzelezko  
kiratsa botatzen dozu-ta. Segi,  
dutxara. (...)

(...) HIESa? Baina nola izango  
duzu zuk HIESa, ama? (...)

*Bainugelara doa. Uraren hotsa  
entzuten da. Irtzen egiten da.*

Txintik ere ez. Bainatu egingo  
zara eta kito. (...) Iriki dot iturria.

(...) Sartu, eroango deusut  
toaila.

*Ane tiraderak dituen altzarira hurbildu, toaila atera eta Martini ematen dio. Martin bainugelara doa. Aneri atentzioa ematen dio Patxi esaten ari denak.*

**Patxi**

*Telefonoz.*

Zer? (...) Nekane izena du.

**Ane**

Itxaron.

*Entzuten ari den bitartean, Martinek toaila hartzen du.*

**Patxi**

*Telefonoz.*

Gaur. Orain. Denbora gutxi barru. (...) Elkarrizketa egiteko, ama.  
(...) Hemen.

**Ane**

Hemen?

*Martini, Patxik dioena entzuten duen bitartean.*

Ez emon hor hiru ordu.

**Patxi**

*Telefonoz.*

Etxean, bai.

*Erlojua begiratzen du. Izugarri berandutzen ari zaiola konturatzen da. Bizkorrago hitz egiten du. Jabetzen da Martin bainugelan*

*sartzekotan dela eta horrek are gehiago larritzen du. Alkandora eranzten hasten da.*

Ez, ez da biharko emanaldirako. (...) Hori da, laguntzaile lana erakusteko. (...) Bueno, gero deituko dizut. (...) Kontatuko dizut gero. Aio. Aio.

*Eskegi egiten du. Bainugelara doa korrika. Toailarekin ikusten dugu borrokan.*

Ez, ez, Martin. Nik dutxatu behar dut. Irten hortik. Irteteko. Etzazu tira egin.

*Tira egiten du, eta kolpeak barrura sarrarazten du. Eztabaidak barruan jarraitzen du. Uraren hotsa entzuten dugu dutxatik irteten.*

Irten hortik. Alde hemendik. Azkenean, irristatu egingo naiz, Martin.

*Uraren hotsa isildu egiten da.*

Ez, utzi irekita, dutxatu egin behar dut-eta, esan dizut.

*Uraren hotsa entzuten da berriro. Patxi bainugelatik irteten da leher eginda.*

Ane! Ane! Esango diozu, mesedez, ateratzeko? Dutxatu egin behar dut eta. Ane! Hor al zaude?

*Ane bainugelan sartzen da. Patxik aireari hitz egiten dio. Hizketan ari dela, Aneren jarduna entzuten dugu: Martinekin ari da bainugela barruan. Ez da ulertzen zer dioen.*

Ez al didazue entzuten? Ea ulertzen didazuen. Begira, neska bat etorriko da, Nekane izenekoa. Esateko asmoa nuen, baina amak deitu du eta... Ez zait niri bururatu. Baina uste dut ona izango dela ikuskizunerako; eta ikuskizunerako ona bada, niretzat ere ona da. Ulertzen al duzue? (...) Aizue. Martin, gero bainatuko zaitugu. Mangerarekin nahi baldin baduzu, zuri gustatzen zaizun bezala.

*Ane eta Martin bainugelatik irteten dira.*

Bihotza, polit hori. Etzazue gaizki hartu, mesedez, nik maite zaituztet.

*Etenaldia.*

E... Eta beste gauza bat. Nahiago dut bakarrik geratu.

*Isilunea.*

Ez... Ez haserretu, mesedez. Baina ulertu behar duzue: zuek hemen zaudetela jakinez gero urduritu egingo naiz. Joan egingo zarete? Ane. Martin. Joan egingo zarete?



*Eskuak luzatzen ditu.*

Joango zarete?

*Anek eta Martinek esku banatatik heltzen diote.*

Eskerrik asko. Eskerrik asko bioi, benetan.

*Ane eta Martin atera hurbiltzen dira. Zabaldu egiten dute. Gero itxi egiten dute. Baina barruan geratzen dira. Patxi korrika doa ate aldera. Ahotza goratuz:*

Maite zaitut, laztana! Zu ere bai, Martin!

*Ane Patxiri begira geratzen da. Patxik seguru egon nahi du Ane eta Martin irten egin direla, eta begiak behartzen ditu ziurtatzeko.*

## **Ane**

*Martini.*

Mugitu, Martin, mugitu; holan ezin izango dau enfokatu.

*Mugitu egiten dira. Patxik ziurtatzen du bakarrik dagoela benetan. Bere burua prestatzen hasten da Nekane datorrenerako. Bitartean, Anek Martinekin hitz egiten du.*

Martin. Irakatsi bihar deustazu neska horren gorputzean sartzen. (...) Bai, etorriko dan neska horren gorputzean. (...) Nekane, bai. (...) Bai, seguru nago. (...) Baietz, seguru nagoela. (...) Ez jat inporta. Esan. (...) Bale. (...) Txikilin, bai. (...) Haren atzean. (...) Zelan geldirik? Bera geldirik? (...) Baina zihero geldirik? (...) Apur bat geldirik. (...) Bizkarrezurra tente, eta lepoa be bai. Holan?

*Jarrera egokia hartzen du. Lepoa tentetzen du.*

Holan? (...) Makurtu (...) A. Eskuak luze. Arnasa hartu.

*(Zutik. Besoak gerrian jartzen ditu, esku-ahurrek aurrealdera begiratzen dutela.)*

Erpin batean. (...) Indarrez. (...) Murgildu, zelan?

*Mugimendu bat egiten du eskuekin eta garrasi egiten du.*

Ez? Bueno, ez dau inporta. Orain urtengo jat. Esadazu ze aldetara apuntatu bihar doten, gorputzaren ze zatitara apuntatu bihar doten. (...) Zein?

*Patxiren bizkarra seinalatzen du. Patxi biluzik agertzen da, dutxatu berria, eta desodorantea jartzen.*

A, bai, hau gerria da.

*Patxiren ipurdia seinalatzen du.*

Hau?(...) Hau ipurtzuloa da! Jode.

*Anek urrats guztien errepassoa egiten du. Aipatu ahala gorputzarekin ilustratzen ditu. Oso bizkor.*

Lepoa tente, eskuak luze, aurrealdera, arnasa hartu, airea bota soinua eginez, ipurtzulora zuzenean, aaaaa!

*Egin egiten du.*

Ederto. Orduan? (...) Ilun dana. Ez dot ezer ikusiko. Ez dot ezer ikusiko? A, bai. (...) Mugitu dana, zelan? (...) Baina konturatuko da bere barruan sartu naizela? (...) Borroka egin? Zelan?

*Patxiri begira geratzen da, alkandora jantzi baitu.*

Ai, ez, alkandora hori oso zatarra da.

*Patxi komunetik irteten da. Martini.*

Itxaron.

*Anek, bizkor, beste alkandora bat bilatzen dio Patxiri. Besaulki gainean jartzen du. Aurreko jarrerara itzultzen da.*

Bai, non ari ginen? (...) A, bai, borroka egingo dabela. (...) Indar handiz. Hankekin. (...) Holan?

*Hankak zabaltzen ditu.*

Batu bihar ditut. Holan?

*Hankak elkartzen ditu.*

Ze berba? (...) UNDA... TUE... TIA...

*Patxi bainugelatik itzultzen da prakak jantzita.*

Zer?

*Patxi aldera jiratzen da. Patxik "ustekabeen" ikusten du Anek aukeratu dion alkandora. Aldatzea erabakitzen du.*

Ederto.

*Martini.*

Aurrera. Berbak. Baina, itxoin, itxoin. Noiz esan bihar ditut, behin haren barruan sartuta nagoela? (...) A, ondo. Barrura, orduan. Esan. (...) UNDA... TUE... TIA... EST... ON... ME. (*Birpasatu egiten ditu.*) UNDA... TUE... TIA... EST... ON... ME. (...) Listo? (...) Ai, ez dakit gauza izango ote naizen. Oso urduri nago, Martin. Patxi ezin da konturatu ni naizela, ezta?

*Atezain automatikoaren txirrina entzuten da. Ane eta Patxi izutu egiten dira.*

A, hemen da. (...) Alde egin bihar dogu, Martin. (...) Ez, zeu neugaz.

**Patxi**

*Janzten ari da oraindik.*

Banoa!

*Sukalderaino doa.*

**Ane**

*Martini.*

Eta urteteko? Beste garrasi bat? Hasieran moduan. (...) A, dana bardin-bardin baina atzekoz aurrera.

*Atea zabaltzen du.*

Segi, goazen hemendik.

*Irten egiten dira eta atea ixten.*

**Patxi**

*Off. Sukaldean. Atezain automatikoarekin hizketan.*

Bai? A, bai, zer moduz? Irekita dago? (...) A, ondo. Lehen eskailera da. (...) Bai, dena eskaileratik goraino.

*Patxi egongelara itzultzen da. Janzten amaitzen du, Nekaneri harrera egiteko. Zapatak janzten ditu, betaurrekoak. Arbel handia ezabatzen du. Han eta hemen botata geratu diren arropak ezkututzen ditu. Atea jotzen dute.*

**Patxi**

Banoa!

*Garrasi bat entzuten da kanpoan. Patxik ez du garrasia entzun. Atea zabaltzen du. Han da Nekane, Ane barruan duela.*

**Patxi**

Kaixo. Aurrera.

**Ane**

Kaixo.

**Patxi**

Bai, sartu, sartu.

**Ane**

Kaixo.

**Patxi**

Kaixo. Zer moduz? Eseri, nahi duzun tokian.

**Ane**

Kaixo.

**Patxi**

Ondo zaude?

**Ane**

“Ederto.”

**Nekane**

Kaixo, zer moduz?

**Patxi**

Nekane.

**Ane**

Nekane.

**Patxi**

Ondo zaude?

**Ane**

Eseri egingo naiz.

**Nekane**

Utzi!

**Patxi**

Zer?

**Ane**

Eseri egingo naizela.

**Patxi**

Zerbait hartu nahi duzu?

**Nekane**

Kanpora!

**Patxi**

Ondo zaude, benetan? Zerbait entzun dut kanpoan...

**Ane**

Ondo nago. Ondo nago. "Apur" bat urduri.

**Nekane**

Nahikoa da!

**Ane**

Sh. Ixo.

**Patxi**

Zer...?

**Ane**

Ezer ez. Ezer ez. Ondo nago. Tea, mesedez.

**Patxi**

Bai, nola ez. Oraintxe ekarriko dizut. Eseri, nahi duzun tokian. Jarri eroso.

*Ane sofan luzatzen da.*

E, ez hain eroso!

*Patxi sukaldera doa. Nekane eta Ane borrokan hasten dira. Bitartean, Patxi hizketan sukaldetik.*

**Patxi**

*Offen.*

Ura prestatuta neukan tea egiteko, beraz eginda egongo da berehala. Terik ba al daukat... bai, menda, kamamila, te arrunta; ez dira hostoak, poltsatxoak dira.

**Ane**

UNDA!

**Patxi**

*Offen.*

Arrunta, ondo. Te arrunta. Nik ere arrunta nahiago dut. Oraintxe noa. Segundo bat. Azukrerik?

**Ane**

TUE!

**Patxi**

*Offen. Barrez.*

DUE? A, parliamo italiano, Nekane?

**Ane**

TIA

**Patxi**

*Offen.*

Eztia! Nik ere bai. Latte?

**Ane**

EST!

**Patxi**

*Offen.*

Zer?

**Ane**

ON!

**Patxi**

*Offen.*

Ron?

**Ane**

ME!

**Patxi**

*Offen.*

Bueno, begira, dena eramango dut eta zuk hartu nahi duzuna.

*Ane trantzea amaitzen ari da. Eroso sentitzen da jada Nekaneren gorputzean. Bere buruari begiratzen dio. Patxi sartzen da erretilua eskuan daramala: te-ontzia, katiluak, azukre-ontzia, esne-ontzia, eztoa, musuzapiak.*

**Patxi**

Hemen naiz.

*Tea zerbitzatzen dio.*

Bueno, hemen duzu, tutti-frutti, mele, latte. Ronik ez daukat. Sentitzen dut.

**Ane**

E?

**Patxi**

E... hemen daukazula dena, zuk hartu nahi duzuna.

**Ane**

Ez, ez; hutsa. Eskerrik asko.

**Patxi**

A.

*Anek katilua hartzen du.*

Kontuz, irakiten dago eta.

*Baina Anek ur freskoa balitz bezala edaten du. Patxi harritu egiten da.*

**Patxi**

Ondo zaude?



**Ane**

Bai, dirudienez, zorabio txiki bat eman dit eskailera “arinegi” igo dudalako. Baina orain ondo nago. Neketsua da eskailera hori.

*Irribarre egiten du. Eseri egiten dira.*

**Patxi**

Bueno, kontatuko dizut pixka bat? Ba, kontua da bi hilabete daramatzadala show hau muntatzen, bihar egin behar dudana, gogoratzen zara telefonoz nola esan nizun? Azkenean, hitz egin nuen produktorearekin... eta bueno, izugarri gustatu zitzaizkion truketako batzuk, berri-berriak baitira. Nik planteatu nion ez nuela laguntzailerik nahi. Ez dakit oso ondo zergatik. Baina berriro hitz egin genuen, eta bera tematu egin zen eta, azkenean, baiezkoa eman nion. Berak deitu egin zizun, gero zuk niri deitu zenidan, gero nik deitu nizun zuri... eta hemen gaude.

**Ane**

Hemen gaude.

*Patxi pakete bat deskubritzen du mahai txikiaren gainean.*

**Patxi**

Beste nonbait utziko dizut hau...

**Ane**

Ez dakit, ez da nirea.

**Patxi**

*Harriturik.*

A. Niretzat al da?

**Ane**

E, a...

**Patxi**

Eskerrik asko. Ez zenuen zertan...

**Ane**

Bai. Horixe... gauzatxo bat ekarri dizut.

*Patxi paketea zabaltzen hasten da.*

Ez ireki! Ez, utzi gerorako.

**Patxi**

Zergatik? Zer da?

**Ane**

Bueno, bale, ireki.

**Patxi**

Zer egingo dut ireki edo ez ireki?

**Ane**

Zuk nahi duzuna.

*Patxi paketea zabaltzen hasten da.*

**Patxi**

Nolakoa zaren, Nekane. Egia esan, ez zenuen dirua alferrik gastatu behar.

*Paketea zabaltzen du. Gauza ulertezin bat ateratzen du, gainean plastikozko txori bat daukana. Hari begira geratzen da tarte luze batez. Ez daki nola erreakzionatu. Azkenean:*

Oso polita! Oso-oso polita, benetan. Ze polita. Zer da, zera...?

**Ane**

Txori bat. Txoritxo bat.

**Patxi**

Jakina, txoritxo bat. A... eta lorontzia da?

**Ane**

Bai, lorontzia.

**Patxi**

Ez. Zera ematen du... musuzapiak gordetzeko... Ez dago garbi. Aizu, zoragarria da. Bilatuko diot toki egokia. Oso-oso polita, benetan. Zoragarria!

*Mahai gainean uzten du objektua.*

Bueno. Ez dakit, kontatuko didazu zerbait zutaz, edo zure esperientziaz? Zer esan zizun zerak...? Ai, ahaztu egin zait. Hau da marka, ahaztu egin zait izena... Ai, nola zen? Produktorea, e..., zera... Ai, nola zen?

**Ane**

Nor?

**Patxi**

Produktorea...

**Ane**

A, ideiarik ere ez.

**Patxi**

A, baina ez zizun deitu, ala? A, ba, esan zidan dezente ezagutzen zintuela, eta gainera... Inazio! Horixe.

**Ane**

Inazio! Inazio, jakina.

**Patxi**

Marka da gero. Burutik joan zait erabat, eta zuri ere bai. Aldi berean bioi. Komikoa da, ezta? Urduri ikusten zaitut. Ez dakit. Nahi duzu zerbait gehiago kontatzea? Hitz egidazu pixka bat zutaz, ez dakit, nahi baduzu.

**Ane**

Bueno; Nekane izena dut...

*Hitzik gabe geratzen da. Isilunea. Patxik irribarre egiten du.*

**Patxi**

Bai, hori badakit.

**Ane**

Eta... Bueno, egia esan, sekulako gogoia daukat. Badaukat esperientzia pixka bat...

**Patxi**

Aja...

**Ane**

Eta...

*Baina isildu egiten da. Isilunea.*

**Patxi**

Bai?

**Ane**

Patxi?

**Patxi**

Zer?

**Ane**

Oso pozik nago.

**Patxi**

A.

**Ane**

Oso pozik.

*Ane eta Patxi agertzen diren argazkia seinalatuz.*

Zure emaztea?

**Patxi**

A, bai. Ane.

*Etenaldia.*

Hil egin zen... Duela hilabete batzuk. Istripu batean.

**Ane**

A.

**Patxi**

Ez. Lasai, lasai. Pixkanaka... gainditzen ari naiz.

**Ane**

Oso ondo. Kementsua izan beharra dago. Esan nahi dut, aurrera jarraitu behar dela.

**Patxi**

Eta zu?

**Ane**

Zer?

**Patxi**

Ezkonduta zaude?

**Ane**

Ez.

**Patxi**

A.

**Ane**

Bueno. Egia esan, bai. Baina gutxi egoten gara elkarrekin. Alegia, ez da erraza azaltzen, baina hori da. Oso gutxitan egoten gara elkarrekin. Eta... Baina ez zaitut aspertu nahi nire gauzekin.

**Patxi**

Ez, kontatu, kontatu. Berak asko bidaiatzen du?

**Ane**

Ez. Baina... gutxi egoten gara. Funtsean hori da. Oso gutxi egoten gara elkarrekin. Berak maite nau, ez pentsa. Asko maite nau. Baina gutxitan egoten garenez elkarrekin... Ba, nik... haren hutsunea sentitzen dut. Hutsune izugarria.

*Negarrari ematen dio. Patxik isilik jarraitzen du.*

Barkatu. Hobe alde egiten badut. Ez dut uste balio dudarik zure showrako. Barkatuko didazu. Ez nago ondo.

**Patxi**

Itxaron. Itxaron, Nekane. Zatoz, zatoz hona.

**Ane**

Ez, ez, benetan. Hobe dut alde egitea. Barkaidazu. Ez nago elkarrizketa egiteko moduan.

**Patxi**

Aizu, baina, nola utziko dizut horrela joaten. Etorri. Eseri. Zerbait ekarriko dizut. Egon hamar minutu, erlaxatu pixka bat eta gero joango zara. Bai?

*Anek zalantza egiten du. Azkenean, amore ematen du.*

**Ane**

Eskerrik asko.

*Eseri egiten da berriro.*

**Patxi**

Bueno, egia esan, ez dakit nola lagundu...

**Ane**

Ez kezkatu. Uste dut "itxi" egingo nauela.

**Patxi**

Zu...? Zergatik?

**Ane**

Asko hitz egin dugu, eta ez... Ez dago konponbiderik.

**Patxi**

Baina, lehen esan duzunez, berak maite zaitu, eta zuk maite duzu bera, eta...

**Ane**

Baina ez da nahikoa. Batzuetan ez da nahikoa.

*Buelta ematen dio makalaldiari.*

Ez, barkaidazu. Ez egin kasurik. Ez da batere interesgarria. Kontatu gauza gehiago showari buruz. Benetan, nahiago dut gai horretaz ez hitz egin. Orain hobeto nago.

*Isilunea. Anek espazioari begirutzen dio. Gaia aldatzen saiatzen da.*

Gustatzen zait zure etxea. Bai, oso...

*Baina, bat-batean:*

Faltan botatzen duzu? Zure emaztea.

*Patxi isilik geratzen da.*

Ai, ez. Barkaidazu. Ez dakit zergatik sartzen naizen. Ni...

**Patxi**

Nahiago dut Aneri buruz ez hitz egin.

**Ane**

A, noski. Barkaidazu. Ez dakit zer gertatzen zaidan gaur.

**Patxi**

Oso bat-batean gertatu zen dena, eta egia esan...

**Ane**

Bai, noski.

**Patxi**

Istripuaz ari naiz. Hona aldatu ginen egunean gertatu zen, duela sei bat hilabete.

**Ane**

A, begira.

**Patxi**

Bueno, egun hartan, bera oso... ez dakit nola esan... poz-pezik zegoen zerbait gertatu zelako berarentzat oso inportantea zena... bere karrerarentzat... oftalmologoa zen... Bueno, karrera amaitu gabe zeukan, hamar bat ikasgai falta zituen... Eta, tira, autoarekin irten zen, normalean ez zuen gidatzen, uhala jarri gabe zeukan,



eta... Egia esan, oraindik ez naiz oso ondo jabetzen bera... ulertzen duzu?

**Ane**

Bai, noski.

**Patxi**

Ematen du oraindik hemen dabilela. Zentzu batean.

*Etenaldia.*

Esan nahi dut oraindik ez dakidala haren falta igartzen ote dudan.

*Barre egiten du.*

Ez dut inoiz pentsatu horretaz. Ez dakit oso ondo zer esaten ari naizen.

*Etenaldia.*

Asko maite dut. Asko maite dut oraindik.

*Etenaldia.*

Baina hilda dago.

*Isilunea.*

Eta nik asko maite badut ere, hilda jarraituko du. Konturatzen garenerako zenbat maite dugun pertsona bat, berandu izaten da beti. Hor dagoenean, aurrean daukagunean, maitasuna... ezinezkoa da. Pertsona bat maite dugunean, beti maite dugu lehen izan zena, eta ez orain dena. Orain ez dakit nola egin bera... Nik haren hutsunea sentitu nahi dut, baina ezin dut, ez...

*Etenaldia.*

Bueno, egia esan, ez dakit zer esaten ari naizen. Orain barkaidazu zuk niri.

*Etenaldia.*

Eta nik premia daukat... premia daukat honi amaiera eman eta beste zerbaitetan hasteko. Ulertzen duzu?

*Mugikorra joka hasten da.*

Amaitutzat eman. Ahaztu. Ahaztu behingoz eta... Ez dakit. Ez dakit posible ote den, baina gogoia daukat hutsune hori sentitzen hasteko. Ulertzen duzu zer esan nahi dudan?

*Anek baiezkoa adierazten du, ez oso seguru. Patxik, joka jarraitzen duen mugikorragatik:*

Barkatu, benetan. Hartu. Hartu.

**Ane**

Zer?

**Patxi**

*Nekaneren poltsa seinalatuz.*

Hartzeko nahi baduzu.

**Ane**

A, bai.

*Bila hasten da poltsa barruan. Mugikorra ateratzen du. Baina ez du asmatzen tekla egokia sakatzen. Oso hunkituta dago Patxik esan berri duenagatik.*

Barkatu... Baina ez dakit ze tekla den.

**Patxi**

A. Berria da?

**Ane**

Bai, berri-berria.

**Patxi**

Ui, ez da erraza. Hau izango da. Berdea. Goikoa izaten da beti.

**Ane**

A, bai.

*Tekla sakatzen du.*

Esan?

*Patxiri.*

Ez, ez da.

**Patxi**

Orain hain konplikatua... Oso tekla gutxi dituzte eta funtzio pila bat, eta...

**Ane**

Bai ba.

**Patxi**

Eta beste hori? A, ez, hori kamera da. A, begira. Argazki bat egin diozu etxeari.

*Barrez biak.*

**Ane**

Eta hau?

**Patxi**

SEND jartzen du. Ez dakit, baina uste dut mezuak bidaltzeko dela.

**Ane**

Ea, erakutsi.

*Tekla sakatzen du.*

Esan? (...)

*Patxiri.*

A, bai, hori zen.

*Telefonoz.*

Bai? (...) Ez, ze Txiki? Nekane naiz. (...) A, Inazio, kaixo, zer moduz? (...) Ondo. (...) Nola dagoen zure marrubixoa? Nor? (...) A, bai, ni, noski, ni; bai, ondo, ondo. (...) Ahotsa? Baliteke, hoztu egin naiz "apur" bat... (...) Bai, hemen, Patxi... Franciscorekin. (...) Ez, ondo nago, lasai. (...) Bai. (...) Tira... (...) Ze opari? (...) Ez dakit ze opariz ari zaren.

*Apaingarriari begiratzen dio. Azkenean, ulertzen du zer esan nahi dion.*

A, bai. Txoritxo bat zotzak gordetzeko. Eskerrik asko. Bai, oso polita. Izugarri gustatu zait. (...) Ez zait ezer gertatzen. Ondo nago. (...) Mesedez, deituko didazu gero? Orain elkarrizketa baten erdian harrapatu...

*Anek eskegi egiten du bat-batean. Patxiri begira geratzen da.*

Moztu egin da. Inazio zen, produktorea, lehen hitz egin dugu...

*Isilune ezerosoa. Anek irribarre egiten du. Patxi begira geratzen zaio. Berrito jotzen du mugikorrak. Anek Patxiri begiratzen dio.*

Ene, nola gauden gaur, ezta?

*Telefonoari begira.*

SEND, ezta?

**Patxi**

SEND.

**Ane**

*Telefonoa hartuz.*

Kaixo. (...) Bai. (...) Bai, hemen. (...) Ez, nik ez dut moztu; bakarrik moztu da, nola moztuko dizut nik...? (...) Bai, horixe naizela Nekane, nor izango naiz ba? (...) E?

*Patxiri.*

Zurekin hitz egin nahi du. Inazio da. Berrito deitu du.

*Telefonoa pasatzen dio.*

**Patxi**

Kaixo, Inazio. Zer moduz? (...) Ondo, ondo. Bai, hemen duk. (...) Ez, ez. Dena ondo. Bai. (...) Zer? (...) Bai.

*Tarte luzea ematen du entzuten. Bitartean, Aneri begiratzen dio.*

Bai. (...) Aja. (...) Aja. (...) Horixe. (...) Bai, ulertzen diat. (...) Ez, ez zegok arazorik. (...) Bai, deituko diat gero. (...) Gero arte.

*Eten egiten du. Aneri ematen dio telefonoa. Begiratu egiten dio.*

Nor zara zu?

*Ilun.*

3

*Egoera bera. Segundo bakar batzuen ondoren. Patxik galdera errepikatzen du.*

**Patxi**

Nor zara zu?

**Ane**

E... Ni...

*Isilunea.*

Komuna?

**Patxi**

Zer?

**Ane**

Komunera joan behar dut. Tripak "apur" bat... nahastuta dauzkat.

**Patxi**

Hor dago.

*Patxik seinalatu egiten dio.*

**Ane**

Hor?

**Patxi**

Hor.

*Ane irten egiten da. Patxik telefonoa hartu eta markatu egiten du. Baxu-baxu hitz egiten du, komuneko ateari adi begira.*

Inazio? Patxi. (...) Bai, hemen zegok oraindik. (...) Ez, ez nian haren aurrean hitz egin nahi. Orain komunean zegok. (...) Ba, egia esan, ez zekiat. Bai, nahiko arraroa. (...) Inazio, gauza bat. Hik esan hidan neska horrekin hembilela, ezta? (...) Ba, begira, bera ez zuan

gogoratu ere egiten hire izenaz. (...) Itxaron, itxaron. Kontua ez duk hor bukatzen. Hasieran italieraz hitz egin zidak. Eta azkenean niri eman zidak hik egindako oparia. (...) Bai txoritxo bat zotzak gordetzeko. Bai, bai, zoragarria. (...) Noski, ni aurrerago konturatu nauk.

*Aneren ahotsa entzuten da bainugelaren barruan.*

**Ane**

*Offen.*

**ME!**

**Patxi**

Itxaron.

*Entzuten hasten da.*

Ez zekiat. Uste diat botaka ari dela... Itxaron pixka bat.

*Bainugela aldera.*

Nekane! Botaka ari zara?

**EST!**

*“EST” hori erantzuntzat hartzen du. Telefonoz.*

**ON!**

Ez, ez duk botaka ari!

Bai, botaka ari duk. Begira, Inazio, ez diat zuen artean sartu nahi, baina ondo al zaudete? (...) Bueno, berak dioenez, ez. (...) Eta, ez zekiat, gutxi egoten omen zarete elkarrekin, ez omen zarete ia inoiz elkarrekin egoten... Badakik botikaren bat edo hartzen ari den? (...) Orain gogoratu nauk: etorri denean esan zidak pixka bat zorabiatuta zegoela. Ezin duk haren bila etorri? Ez dik ematen bakarrik joateko moduan denik... (...) Orain ez kezkatu ikuskizunarekin. Primeran moldatuko nauk... (...) Lana nire kontu, hi kezka hadi berarekin. (...) Zer zekiat ba nik,

**TIA!**

**TUE!**

**ONE!**

*Garrasi bat entzuten dugu. Ane Nekaneren barruan sartu denean entzun dugun berbera.*

*Pixka bat geroago, Ane ateratzen da komunetik, Nekanerengandik kanpora jada. Patxik ez du ezer antzematen.*

eramantzak kafetxo bat hartzera, esaiok maite duala, loreak oparitu, ez zekiat. (...) Ondo. Hi hator hona. (...) Noizko iritsiko haiz? Ondo. Aio.

*Patxik eten egiten du hizketaldia. Bainugelako atera hurbiltzen da. Kolpe leuna jotzen du atean.*

Nekane?

Nekane! Inazioarekin hitz egin dut oraintxe. Eta hona dator, zure bila.

Nekane?

Ondo zaude?

Sartu naiteke?

*Patxi bainugelan sartzen da.*

*Ane arbel handira hurbildu, AGUR hitza idatzi eta Martinengana hurbiltzen da.*

**Ane**

Idatzi gura deutsazu zeozer?

*Arbelean "AGUR" hitza idazten da, bakar-bakarrik, eta kaligrafia kaskarrez.*

*Irten egiten dira.*

Nekane! Ai, ze...? Nekane!  
Nekane!

*Bainugelatik irteten da. Berrito sartzen da. Nekane ez du erreakzionatzen, eta Patxi gero eta urduriago dago.*

Nekane? (...) Nekane? (...)

*Nekanearen aienea entzuten da. Bere onera etortzen ari da.*

Entzuten al didazu? Nekane! Konortea galdu duzu, antza denez. Nekane, begiraidazu.

**Nekane**

*Offen. Bainugela barrutik.*

Non nago? Nor zara zu? Zer gertatu da?

**Patxi**

*Offen.*

Nekane. Ni naiz, Francisco. Etorri, lagunduko dizut altxatzen.

**Nekane**

*Offen.*

Ez ukitu. Non nago?

**Patxi**

*Offen.*

Lasai. Nire etxean zaude.

**Nekane**

*Offen.*

Baina hau bainugela da-ta. Zer egiten dut nik baineran sartuta?

**Patxi**

*Offen.*

Lasai. Inazio bidean da, zure bila dator. Ni... Nekane!

*Nekane sartu egiten da, zertxobait aztoratuta.*

**Nekane**

Non nago? Nor zara zu? Zer gertatu da? Zer egin didazue? Zer egin didazu? Joan egin nahi dut.

*Bainugelatik irteten da. Patxi haren atzetik doa.*

Ze toki da hau? Non nago?

*Bere poltsa ikusten du sofa gainean.*

Ai, nire poltsa!

*Hartu egiten du.*

Ai, nire mugikorra!

**Patxi**

Nekane!



## **Nekane**

Zer gertatu zait? Zer gertatu zait?

*Aterantz doa. Zabaldu egiten du.*

## **Patxi**

*Haren atzetik, zotzak gordetzeko txoritxo eskuan duela.*

Itxaron, Nekane. Inazio bidean da. Zure bila dator. Nekane! Txoria ahaztu duzu! Nekane!

*Baina Nekane joan egin da. Isilunea.*

*Patxik atea ixten du. Barre egiten du bizi behar izan duen egoera xelebrea dela eta. Baina bat-batean zerbait deskubritzen du ispiluan. Arbelaren isla da: "agur" hitza ageri da bi aldiz idatzita. Ispilu aldera doa. Arbel aldera jiratzen da. Ez du zirkinik egiten.*

*ILUN.*

*London, 2002ko abuztua  
Buenos Aires, 2003ko maiatza*